

Eskaera treinak geldi ditezen Itsasuko geltokian Itsasuko herritarren eskutik



Duela zenbait urte oraino treina gelditzen zen Itsasuko geltokian keinu eginez geroz. Treinaren geldialdirik ez da gehiago, nahiz treinetik jautsi eta igaiteko egokitua izan, eta aparkatzeko lekuak egon.

2015 ean, Akitaniako berriko Eskualdeak eta Euskal Herri Aturri sindikatek dirustatu dituzte obra handiak burdin bide hortan. Informazio eskasaren gatik itsasuarrek ez dute baliatu trenbidea, eta Konpostelako beilariek eta bestelako ibiltariak dute geroztik gehienik erabiltzen.

Geldialdirik gabeko geltokia ekonomia eta ekologiaren kontra doa, trenbide hori dirustatua izanik otozionaeren alternatiba bezala.

Gisa hortan, Bidarray, Larresoro, Uztaritze eta Milafrangak gozaten dituzte burdin bide dirustatze horik, Itsasuri baztertu delarik erabilpen eskasaren estakuruz.

Bizkitartean :

- Itsasuko geltokiak baitezpadako guzia badu geldialdirako eta herri erditik 5 minutetan dago
- Ikasle eta langileentzat zerbitzu preziagarria da treina, Itsasutik Baionarat joateko oraingo orenen arabera : 7tan, 12.tan, 17.30tan, 18.45tan. Itzulirakoan : 6.40tan, 12tan, 17.10tan, eta 20 etan. Ibilbideak 40 minutaren iraupena du.
- Baionan geltokia hiri erdian da, eta garraio sare egokia nora nahi buruz abiatzeko
- Itsasu naturaren erdian kokatua den herri bat, oinezko ibiltarientzat leku hauta
- Ostatu eta jatetxe eskaintza ederra herritik kanpokoei idekia, geltokiaren erabilpenak hobetsiko lukeena
- Hiru kanoe/ rafting enpresa geltokitik kilometra erdian

Baitezpadakoa da treina itsasun gelditzea : ekologiaren aldetik bideak arintzeko, ekonomiaren aldetik lanbide eta ausagailu beharrei ihardesteko

Zerbitzu horrek gastu berririk ez luke. Xahutua izan den dirutzaren hobeki baliatzea liteke

Bidai denboraren aldetik, doi doieko ondorioa luke itsasuko geldialdiak : 5 minuta gehiago ibiltariak uzteko eta hartzeko

- **Eskatzen dugu Eskualdeak eta SNCFak lehen bait lehen ezartzea berriz eguneroko 8 tren geldialdiak**
- **Itsasuko Herriak eta Euskal Herri Elkargoak Baiona Garazi trenbide horren erabiltzeko sustatze kanpana bat bultzatzea nahi dugu**
- **bi urtez entseatua izan dadin Itsasuko geldialdia, zinezko promozio indar batekin, frogatzeko geldialdiaren beharra**

Asmo hauekin bat egiten baduzue, izenpetzen ahal duzue petizone hau. Izenpedurak helduak izanen zaizkie Itsasuko Herriari, Euskal Elkargoari eta Akitania berriko Eskualdeari, hau baita trenbide horren kudeatzailea

IZEN-DEITURAK

HELBIDEA

SIGNATURE

Herritarren eskutik daukazu izenpedura biltze hau. Kontaktoan jarri nahi baduzu : 0607965431 / 0638638340 / 0603568352

Utz dezakezu izenpedura orri hau kausitu duzun saltegian edo herriko etxeko harreraren maiatzaren azkena aintzin. Izenpedura orriak nahi dituztenek erran den leku horietan kausitzen ahalko dituzte